

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresarekin hasi baino lehen, oso garrantzitsua da argi eta garbi zehaztea norentzat eskainiko ditugun gure zerbitzuak. Hau da, merkatu segmentazioa egitea: gure bezero potentzialak identifikatzea eta haien ezaugarriak aztertzea. Segmentazio egokia gabe, gure eskaintza orokorra izan daiteke eta ez luke benetan erantzun egingo bezeroen behar zehatzei.

Gure enpresaren balio-proposamena kontuan hartuta, oso argi daukagu norentzat sortu ditugun gure zerbitzuak. Ez gara desgaitasuna duten pertsonengana bakarrik zuzentzen; gure helburua da inklusioa gizarte osoan zabaltzea, eta horregatik, hainbat bezero-talde edo segmentu ditugu. Segmentu hauek gure balio-proposamenarekin guztiz lotuta daude, eta bakoitzak behar desberdin bati erantzuten dio.

Lehenengo segmentu nagusia desgaitasunen bat daukaten pertsonak izango dira. Gure balio-proposamenaren erdigunean daude, eta gure zerbitzuen helburua da haien autonomia, parte-hartzea eta ongizatea hobetzea. Hori lortzeko, gure prestakuntza, material egokituak eta tailer emozionalak diseinatuta daude informazioa errazteko, komunikazioa hobetzeko eta oztopo sozialak murrizteko. Talde honetan zenbait azpi-talde aurkitu ditzakegu, horregatik uste dugu gure merkatua dibertsifikatu batean lan egingo beharko dugula. Pertsona bakoitzak desgaitasun ezberdinak izan ditzakelako. Desgaitasun fisikoa, sentSORIALA edo intelektualak izan, gure helburua da bakoitzari egokitutako laguntza ematea.

- **Desgaitasun fisikoa:** mugimenduan arazoak dituzten pertsonak dira. Hala nola: hanka edo besoa falta zaion pertsona bat edo gurpidun aulkian doan pertsona bat.
- **Desgaitasun sentSORIALA:** sentsumendutan arazoak dituzten pertsonak dira, multzo honetan ikusmen edo entzumen murrizketak dituzten pertsonak sartzen dira
- **Desgaitasun intelektualak:** ideiak ulertzeko arazoak dituzten pertsonak dira, adibidez down sindrome edo autismoa duten pertsonak dira.
- **Desgaitasun intelektualak:** gaixotasun mentalak dituzten pertsonak dira, hala nola depresioa, antsietatea edo eskizofrenia. **Irudia 1.***
- **Desgaitasun anitzak:** desgaitasun mota bat baino gehiago dituzten pertsonak dira.



Enpresaren jarduera Euskadin kokatzen da, bereziki Bizkaian, non 138.000 pertsona baino gehiago desgaitasunen batekin bizi diren, hau da, biztanleriaren %6,3. Datu honek erakusten du kolektibo zabal eta anitz bati zuzendutako zerbitzu egokituak diseinatzea beharrezkoa dela, haien bizi-kalitatea eta gizartean inklusioa hobetzeko. (Orain, 2023)

Gure proiektua desgaitasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko sortu da, baina helburu hori lortzeko desgaitasun fisiko, intelektual eta sentSORIALAK dituzten biztanleriak ezezik ezinbestekoa da gizarteko eragile ekonomiko desberdinen inplikazioa (familiak, enpresak eta administrazio publikoa). Hori dela eta, gure ekimenak beste ondorengo segmentu hauei zuzenduta daude:

Bigarren segmentu nagusia dira familia eta zaintzaileak. Gure balio-proposamenaren puntu bereizgarrienetakoa da familia-atsedeneko zerbitzua eskaintzea. Askotan, desgaitasuna duten pertsonen zaintzan ari diren senideek ez dute denbora libre nahikorik, eta guk hori arintzeko aukera ematen diegu: guk pertsona zaindu bitartean, familiak atsedeen hartu edo bere zereginak egin ditzake. Hori dela eta, segmentu honek gure proiektuaren parte estrategikoa osatzen du.

Hirugarren segmentua hezkuntza-zentroak dira. Eskola, institutuek edota unibertsitateek funtsezko rola dute inklusioan. Gure zerbitzuak irakasleei, ikasleei, irakasleak ez diren langileei edota IGE-ei zuzenduta daude, prestakuntza, sentsibilizazioa eta baliabide inklusiboak eskainiz. Hauetatik bereizi dezakegu integrazio sozialeko gradua, gure ustez gure tailerreko edukiekin parekoak direlako.

Laugarren segmentua enpresak dira. Lan-munduan inklusioa sustatzea funtsezkoa da desgaitasuna duten pertsonen autonomia eta bizi-kalitatea hobetzeko. Enpresei irigarritasun-aholkularitza eta prestakuntza eskainiko diegu, lan-ingurune inklusiboak sortzeko eta lanpostuak egokitzeko. Gogoratu desgaitasunekin bizi diren pertsonak arazo asko dituztela laneko arloan, eta horregatik honen bidez estigma hauekin apurtzea saiatzen gara. Eta nola ez, ezin dugu ahaztu Euskal Autonomi Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen langabezia tasa % 16,5ekoa dela (Orain, 2023).

Bostgarren segmentua Udalak eta erakunde publikoak dira. Gure proiektuak udalei lagundu nahi die irigarritasuna hobetzen edota sentsibilizazio-kanpainak antolatzen.

Azkenik, **desgaitasunaren alde lan egiten duten elkarteak** direla eta, hauek ere gure segmentu garrantzitsu bat dira. Gure balio-proposamenak bizipenetan eta esperientzia errealetan oinarritutako prestakuntza eta tailerrak eskaintzen ditu; horregatik, haien ezagutza gure zerbitzuak hobetzeko funtsezkoa da.

Ez dugu soilik elkarte horiekin lan egin nahi, baizik eta gizarte osoan inklusioa sustatu eta normalizatu nahi dugu. Gure ustez, desgaitasuna ez da baztertu beharreko ezaugarria, baizik eta aniztasunaren parte, eta gizarteak pertsona guztien balioa aitortu behar du, haien gaitasunak edo mugak kontuan hartu gabe.

Horregatik, gure tailerrak ez daude bakarrik desgaitasuna duten pertsonen zuzenduta, baizik eta edozein adinetako ikasleei, irakasleei eta gai honi buruz interesa duten herritarrei. Helburua da inklusioa eta errespetua sustatzea, aurreiritziak apurtzea eta belaunaldi berriei erakustea pertsona guztiek balio berdina dutela. Gure jarduerak aukera ematen dute desgaitasunaren inguruko ezagutza zabaltzeko, enpatia lantzeko eta jarrera inklusiboak garatzeko.

Historian zehar, desgaitasuna duten pertsonen bazterketa, diskriminazioa eta mespretxua jasan dute. Gure asmoa da horrelako egoerak berriro ez gertatzea, eta horretarako, hezkuntza eta sentsibilizazioa funtsezko tresnak dira. Gizarte inklusibo bat eraikitzea ez da soilik lege edo politika kontua; pertsonen jarrerak eta eguneroko harremanak aldatzea eskatzen du. Horregatik, gure proiektuak komunitate osoa inplikatu nahi du.



Iturriak

- Microsoft Copilot. (2026). Logotipo generado por inteligencia artificial para “Erraztu S.Coop.” [Imagen generada por IA].
- Irudia 1.
https://blogger.googleusercontent.com/img/b/R29vZ2xl/AVvXsEgY9JvE8TOgByYej44OfM9nb__LOC30t1sVS5i0esTaVSTGrLhTk08z1lDVe7iGfv9hh8J4xQsno8U9asCGdx7booVjuYzeTk0lvB3eEioSRCYFkMZ2Yg_kl15MVyweVIp05lanD25HZOyFO/s1600/Tipos+de+Discapacidad-ACERCALOS.jpg
- Orain, 2023.
<https://orain.eus/es/actualidad/sociedad/2023/09/20/el-6-3-de-poblacion-vasca-vive-en-situacion-de-discapacidad/>